

Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2002ko ekainaren 28a VII.urtea

Usurbil, 139. zenbakia



**Andatzako megalitoak,
gure arbasoen ondarea**

USURBI

GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZI!

Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUA.
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

ZUBEROTARREKIN BAT AUZOLANEAN

USURBILEN HELBURUA: 8.750 €

Dagoeneko: 4.000 euro lortu dugu

Zure ekarpena egin nahi baduzu,
sartu dirua 140 00 1870 7 Euskadiko Kutzako zenbaki honetara

Santixabeletan eman euro bat Xiberuaren alde!

MILA ESKER!

Xiberoa
garatzen!



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **bikote!** Enekoek ekainaren 16an urteak egin zituen eta lan analak maitzaren 3an. Zorionak biol eta muxu bana etxekoan partez!



Zorionak **Miren eta Sara!** Berantiz Akademiak Miren eta Sara zoriondu nahi ditu Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketa gainditu dutelako. Zorionak eta oso ondo pasa jailetan!



Zorionak **ama!** Urteak aurrea joan arren, egunetik egunera gazteago zaude. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak eta urte askuan amona **Inaxi!** 90 urterekin jarrai ezazu beti bezain polit eta pixkor gure ondoan. Zure seme-alabak, bilobek eta birlobek izugarri malte zaitugu. Muxu goxo goxoak zuretzat denon partetik.



Zorionak **bikote!** Santixabel egunean zilarrezko eztaia, que pasada! Horrelako itxurarekin norik esango luke hain... "helduak" zarete! Sekretua zuek adina lan egitea izango ote da "Zumeta jatetxean"? Irakurleei jatetxean erreserbak egiten hasteko eskatzen diegu, zuek lan eta lan eginaz hain gazte jarrai dezazuen. Familiako izenean: zorionak!



Zorionak **Julen!** Uztailaren 17an urte bat egingo duzu. Zorionak beroenak opa dizkizue zure berraiton-amonak, aiton amonak, aita eta amak, osabak eta sendi guztiak. Segi horrela polit hori, eta urte askotarako!



Zorionak **bikote!** Uztailaren 6an zuen urtebetetze eguna izango denez, zorionak eta muxu handi bat etxeko eta lagunaren partez. Errondaren zai gaude.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: **uztailak 19**. Ekartzeko azken eguna: **uztailak 12**.

Jaiotzak

Ianire Palacios Rodriguez

2002-VI-6

Puntapax kalea

Hildakoak

Pedro Zinkunegi Alkorta

2002-VI-16

Urteta baserria

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erizantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 36 28 49
- Gure Paketa 37 32 28
- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epategia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturrigalde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

uztaila

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuarte
tean badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Ze er irizten?



Argitaratzailea

Noaúa! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaúa.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaúa>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe, Alex Udabe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaúa! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaúa! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Eskura lau megalito ditugu.
Horiek bildu ditugu honakoan.



Txikia menderatzen erreza da

Joxe Mari Irazusta

Jon Abrilen kasuak berriro aktualitatean jarri gaitu euskal komunikabideak. "Berriro" diot, gure fama apurra holako erasoei zor diegulako. Euskal hedabideen aurkako erasoak betidanik ezagutu ditugu, batzuk agerikoak besteak ezkutukoak. Eraso gehienak Euskal Herri kanpotik etorri zaizkigu; urrutiago joan gabe, ni lanean ari naizen "Argia"ren kontrako erasoak asko izan dira, eta gure herritar bat "Egun-karia"ren hasieran ETak izendatu zuela zabaldu zuten.

Baina Euskal Herri bertatik ere bideratu dira erasoak, ustez ingurukoak diren kolektiboak eta pertsonalitateak ere saiatu izan dira erasotzen, komunikabideren baten gauzak beren gustora egiten ez zituelakoan.

Eta erasoen aurrean, euskal hedabideak nahikoa bakar-dadean geratu dira.

Jon Abrilen kasuan, garbi dago akusazioak ez zuela ez hanka eta ez bururik, eta horrela frogatu da azkenean eman zaion sasi-irtenbidearekin. Frankismoko diktaduraren jokabideak dira hauek, sasi-

demokraziaren lustrearekin itxuratuta.

Baina zein da gure arazo nagusia? Ahulak izatea. Euskal hedabide batek beste edozein komunikabideren antzeko jokabidea hartzen badu -Abrilen kasuan irudi batzuk filmatzea- neurri bereziak aplikatzen zaizkio: txikia delako eta euskara duelako komunikazio hizkuntza.

Indartsu edo sendo dagoe-nari, neurrian erasotzen zaio. Euskal prentsaren benetako ezina eta sufrikarioa, egunerokoa, horretan datza: euskal hiztunak espainol eta frantse-sen aldean gutxi garen beza-la, gure merkatua murrizta dela. Hori da gure ahulda-dea. Eta txikiari nonnahitik erasotzen zaio.


Erantzunik onena: indartze-ko lanean aurrera egitea. Komunikabideak egiten ditugunok -honek berdin balio du "Argia"rentzako edo Noaúa!-rentzako- gure lana gero eta hobeto eginez. Eta herritarrok, euskarazko hedabideak erosi eta erabiliz. Euskararekin konprometitzea da etsaien pozoia kontrako sendabelarra.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

David Asensio



Zorte txarra David Asensio futbolariak izan duena. Denboraldi hasieran Extremaduraino abiatu zen baina lesionatu eta zazpi hilabetez geldi egon behar izan du. Aurten jokatu ez dituen minutuak berreskuratu nahi ditu usurbildar gazteak.



Lesionatuta egonik, luze egingo zitzaizun denboraldia, ezta?

Zorte txarra izan dut. Hara joan eta bigarren egunean lesionatu egin nintzen, bigarren entrenamenduan. Bostgarren metatarsianoa hautsi eta sei hilabetez geldi egon nintzen. Horri buelta eman, entrenatzen hasi eta min hartu nuen berriz ere. Beste hilabete egon nintzen geldirik.

Jolastu dudana gutxi izan da, denboraldiko azken partidak. Baina hala ere oso esperientzia oso ona izan da. Etxetik atera eta bakarrik ibiltzen moldatzeko ondo etorri zait. Han ere lagunak egin ditut. Eta hemendik ere joan dira nire lagunak bisitan.

Utzita jokatu duzu Extremaduran, nolatan joan zinen hara eta ez beste leku batera?

Klubak eskainita joan nintzen hara. Ni jokalaria gisa egiteko utzita jolastea proposatu zidan Athletic taldeak. Lehen taldean Urzaiz zegoen eta zaila zegoen jolastea. Bigarren Maila aukera ona zen.

Josu Ortuondo zen orduko entrenatzailea, beste euskaldun bat. Horrek ere konfidantza eman zizun.

Bai, bera han egoteak konfidantza handia eman zidan. Gero entrenatzaile aldaketa eman zen eta presidentzian ere gora behera handiak egon dira. Urtarrila hasieran eman zen presidente aldaketa. Gorabehera gehiegi. Baina ez dut uste jeitsieraren arrazoia hori izan denik. Extremadurak ez du dirurik. Jende gazte asko daukate, 18-19 urteko jokalaria. Titularrak baziren esperientzia handikoak, baina lesio asko izan ditugu.

Athlético de Madriden aurka egin zenuen debuta, eta Kiko aurkari izan zenuen partida

hartan. Denboraldi honetan, ordea, taldekide izan duzu Extremaduran. Zu bezalako hasiberri batentzat kategoriako taldekidea, ezta?

Bai, hala da. Txonkatilarekin arazoak izan ditu baina oraindik kalitate handia du. Berarekin harreman ona egin dut. Oso tipo jatorra da, beti brometan dabil.

Orain zer moduz zaude, guztiz osatuta jada?

Orain ondo nago. Azken partidetan jolastu nuen, Bigarren B mailan ginen jada baina hala ere, minutu batzuk jokatzeko aukera izan nuen.

Eta aurrera begira, nola dator denboraldi berria.

Pentsatzen dut egin dudana denboraldiarekin beste urtebetez utzita jolastuko dudala. Ez dago batere erraza Athletic-en aritzea, eta kanpora joatea ez da aukera txarra.

Eta kanpora atera behar izatea ez al zaizu gogorra egiten?

21 urte dauzkat eta etxetik kanpora egotea ez zait orain gehiegi axola. Hemen egongo banintz askoz hobe, baina ni jolastu egin nahi dut eta minutuak behar ditut.

Beraz, nahiz eta ez jokatu, Extremaduran ez zara hain gaizki sentitu.

Han dena ezberdina da. Ez dago hemengo xarma, dena oso lehorra da. Baina oso gustura ibili naiz. Jendea oso ondo portatu da nirekin. Irtsi eta berehala konturatu nintzen alde handia dagoela. Oso jende irekia da. Gu itxiagoak gara, han hasieratik konfidantza handia ematen dizute. Gainera, oso ondo hartu naute.

SANTUENEA

San Joan sua

Isaak Muñoz



Aurten ere, aspaldian beza-laxe, San Joan festa iritsi da eta gure auzoan ere San Joan sua antolatu dute. Auzoan bertan egin ez bada ere.

Urtetik urtera sua egiteko lekua topatzea gero eta zailagoa izaten da, eta aurten ibaia- ren bestaldean egin dute gure auzoko gaztetxoek. Ez da izan denok nahi izaten dugun sutea izan baina gaur egun San Joan suak ez dauka orain dela urte batzuk edukitzen zuen jarraipena. Baina hori ez da gure auzoan bakarrik gertatzen, beste leku askotan ere ohitura asko galtzen ari da. San Joan suak antolatzen dira, baina suaren dimentsioak asko jeitsi dira.

Ni gogoratzen naiz gazteagoa

nintzenean (orain dela hamabost urte gutxi gora behera) mendira joaten ginela Ameri aldera, eta handik balio zuen edozein tamainako enborrak hartzen genituela. Handiak bazi- ren kuadrillaren artean erama- ten genituen arrastaka. Orain, berriz, enpresan erabiltzen diren paleak hartzen dituzte. Orduan jende askok partehartzen zuen suaren antolakuntzan eta, egia esan, Santueneako suak beste auzotako suekin konparatuta nahiko handia geratzen zen.

Gero dena erre baino lehen gailetak eta edariak banatzen zituzten lanean ari zuen per- sonentzako. Jendetza ederra biltzen zen hori ikustera.

Oraingo su honetan beste

gauza batean fijatu naiz. Lehen egiten ziren suteetan panpin bat edo pelutxe bat jartzen zen goi partean, aurtengo gure suari lanean erabiltzen den kasko zuria ipini diote puntan.

Egia esan, horrelako detaileekin konturatzen gara ohiturak aldatzen joaten direla denbora- ren poderioz.



URDAIAGA

Teknologia eta modernitateak

Alazne Begiristain



Haurra nintzenean, McDo- nalseko pailazoa ikusi ohi nuen telebistan. Denbora aurre- ra joan da, eta, berriz ere, ikus- teko aukera dugu, gainera herrian bertan, eta ez telebis- tan. Urbil merkataritza gunean hain zuzen ere. Batek baino gehiagok esango duzue: "zer- tan ari da hau pailazoa gora eta pailazoa behera?" Ba, kon- tua da, pailazo hau gure auzo honi bisita egin diola pentsatzen jarria naizelako.

Eguraldi ona egin duen egu- netan, gure auzoko kaxko alde- an ibiltzeko aukera izan dut. Ikusi behar izan ditudan zikinke- riak ez zaizkit batere gustatu. Aparkalekuetan MacDonalseko kaxa horiek lurretik botata ikus- teak ez dit batere graziaz egin.

Denok bota izan dugu, noizbait, goxokiren baten papera lurrera, badakit ez dagoela ondo; baina, hortik ikusi nuena ikuste- ra, badago alderik. Agian ez naiz egokiena aholkuak emate- ko, baina saia gaitezen apur bat, mesedez, guztion onerako baita.

Gaiaz aldatuz, beste kontutxo bat ere aipatu nahiko nuke. Orain dela egun batzuk, aspal- diko partez, gure auzoko ermi- tan izan nintzen. Beti bezalaxe zegoen, baina bazegoen berri- kuntzaren bat edo beste. Kan- paiari tiratzeko sokaren ondoan, kaxa bat ikusi nuen botoi asko- rekin. "Zer ote da hau?", pen- tsatu nuen.

Kanpaia jotzeko garaia iritsi zenean, inork ez zion sokari tira,

nahikoa izan zen kaxa horre- ta- ko botoi bat sakatzeko, kanpai hotsa entzun zedin. Hauek dira hauek modernitateak!



KALEZAR

Andoni Udabe



Festarik festa, deskantsurik ez da

Udan sartu berri garen honekin festa giroa usain daiteke edonon. Kalezarko San Joanekin hasi eta AGiñako San Praixkuak arte izango da aukera franko parranda egiteko.

San Joanak pasa brriak dira gure auzoan eta esan behar da aurtan ere giro polita izan dela gure auzoko plaza inguruan. Halako plaza txikian zenbat festa desberdin egiten diren!... Batetik, ume pila bat ibili dira buruhandien bizkarrekoei iheska eta garrasika, baita joku ugari egiten ere. Batzuk hartu zuten pazientzia ederra horiek prestatzen. Umeek mundial pasa zuten. Bestetik, parrandero askoren dantza eta ohiuak jasan ditu goizalderarte historiaz beteriko

gure plaza zaharrak. Honakoan ere, magoaren trikimailuak, sardinak eta trikitilariak, suzieren danbarra, eta nola ez, Gorritiren showa. Hau falta denean ez dakit Kalezargo festarik izango den!

Gurea bezalako auzo txiki batean festak aurrera ateratzea berez ez da lan samurra eta Hernani bezalako herri parrandero bat ondoan izanda ere, are zailagoa. Horregatik, zoriondu nahi nituzke jai batzordeko kide guztiak egin duten ahalegin guztiairengatik, umeentzako joku eta gauza guztiak prestatzen ibili direnak eta noski, lo ordu asko egin gabe besteek ondo pasatzeko lan egin behar izan dutenak. Bejondeizuela

denoi! San Joan eskea nahikoa ez eta oilasko biltzen ere talde ederra aritu zarete, xirimiri eta laino guztiei aurre eginda jai giro ezinhobean.

Kalezargo festek herrikoei pasako die lekukoa eta behin hauek pasatzean ez da atsedetik izango udara bukatu arte. Beraz, juerga eta parranda egin nahi duenak badu nahikoa aitzakia. Datorren urtean, dena ondo bada, ospatuko ditugu berriro Kalezargo festak. Bitartean, jaiak ondo pasa ditzazuela denok, Isabel, Santiyo, Estebam edota Praxku. Izena da gutxienekoa.

Txintxoak izan eta... gora San Joanak!

ATXEGALDE

Maria Jesus Urbietta



Ohitura zaharrari eutsiz, festa giroa

Ekaina dagoeneko badoa, eta San Joan suarekin hasi eta bagoaz festa bila. San Joanak bukatu, eta, ondoren, San Pedro, San Martzial eta Santixabel. Hau da, hau, aukera ederra!

Haurrak oporretan daude, ikastolara joan beharrik ez; gauean lotara joateko presarik ez; eta, goizean ere, ohetik jaikitze ordurik ez. Guztia desmadratuta, esan ohi den bezala.

Baina, badago alderdi onik ere. Izan ere, ez al da ederra haurrak aurpegi alaiekin eta ondo pasatzeko asmoarekin ikustea?

Hortxe ikusten ditugu gazteak beren patriketan globo txikiak dituztela, urez betetzeko txanda

ezin harturik iturri aldamenean. Elkar bustitzen ibiltzen dira, blai-blai eginda bukatu arte.

Hau da hau gozamen! Mutiak neskak busti nahian, eta, alderantziz. "Begira nola jarri gaituzten!", "Busti-busti eginda utzi naute, etorriko da buelta!", ja, ja, ja... horrelako oihuak entzuten dira nonnahi.

Ez dute askoren beharrik izaten ondo pasatzeko batzuetan.

Atxegalden horren falta somatzen dugu. Garai batean, 20 urte atzera eginez, haur eta gazteak auzoan jolasten zuten.

Festak ere izaten genituen auzoan. Atxegaldeko elkarteak antolatzen zituen eta giro ona izaten genuen auzoan. Baina, urteen poderioz, bertan behera

geratu ziren. Santurik ez zen bilatu, elizarik ere ez dugu, eta, ondorioz, festak antolatzeari utzi zioten.

Urte askotan zehar girorik ez da egon auzoan. Horregatik, txoko honetatik galdera hau plazartu nahiko nuke: berandu al da berriz ere auzoan festak antolatzen saiatzeko? Esaten den bezala, ez omen da itxaropena inoiz galdu behar. Bitartean, ondo pasa Santixabelak!



TXOKOALDE

Imanol Goenaga



Trenbidea eraldatuko ote dute?

Hilero bezala oraingoan ere hementxe natorkizue gure auzo honetako kontutxoak aipatzera.

Oraingo honetan, trenbidea izango dut hizpide. Izan ere, azken aste hauetan Euskotreneko langileak gure auzotik ibili baitira, trenbideko mugak bereizten. Zurrumurruek diotenez, beste karril paralelo bat ipintzekoak omen dira,... baina, esaera zaharrak dioten bezala, esanak esan denborak erakutsiko digu zer egingo duten.

Trenbideko mugak aldera batera utziaz, gure Euskal Herriko mugez mintzatzera pasako naiz, izan ere, Illunbe sagardotegiko jabea den Joxe Angelek

hauek igaro eta Madrilen jate-txe bat ireki berri baitu, izen berarekin.

Eta, bukatzeko, nola ez! Akerra Gatzetxeaz hitz egin behar, ohiturari muzin egin gabe.

Oraingoan, futbolari eskaini behar diot tartea, izan ere, mundiala dela eta ez dela, modan dagoen kirola baita.

Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako areto futboleko txapelketan, Akerra Gatzetxea final laurdenetara heldu zen, baina, tamalez, ezin izan zuten aurerra egin. Hala ere, lehengo urtean

baino txapelketa hobeagoa egin dute. Beraz, ea ba pixkanaka-pixkanaka eta urtez urte hobetzen jarraitzen duten. Hurrengo urtean final erdietara eta bi urte barru, finalera, pronostikoak hutsik egiten ez badu, bederen.



KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



Nafarroako ikastolei eman beharreko laguntza

Aurtengo Nafarroa Oinez Urriaren 20an Tuteran ospatzekoa denez, badirudi gero eta indar handiagorekin erantzuteko aukera ematen duela. Lehenik, eremu ez euskaldunetan egoteak dakarkion ordaina ez da batere ona: diru laguntza gutxiago, euskara ofiziala ez izatea, matrikula garestiagoa... Eta, oraingoan, gainera, Nafarroako gobernua zeuzkan dirulaguntzak kendu dizkio. Egia esateko, ia biluzik gelditu dira.

Eremu honetan dauden Sar-taguda, Lodosa, Tuter, Irunberrri eta Bianako ikastolek ia 600.000 euro (100 milioi pezeta) gutxiagoko dirulaguntza izango dute.

Aipatu behar, ia 500 haurren

gurasoek beraien sakeletik lehen ez gainera, sakrifizio handiagoa egin beharko dutela. Esate baterako, Tuterako Argia ikastolako gurasoek haur bakoitzeko hilero 20.000 pezeta ordaintzen dute (liburuak, jangela,...) beraien seme-alabek euskaraz oinarizko hezkuntza jaso ahal izateko.

Irunberrriko Arangoiti ikastolan, berriz, itoginez josirik daude, eta ordenagailu gela pasiloetan dute. Herriko udaltxeak ez dio inondik inora gela publikoren bat uzten, haurrek duintasunezko egoeran klaseak jasotzeko aukera izan dezaten.

Egoera tamalgarri hauen aurrean, urtero bezala, Nafarroa Oinez aldeko taldetxo bat ari da Usurbilen lanean.

Herrian ditugun jaietan materiala saltzen ibiliko da: kamisetak, txapelka, galtzak, zainzuriak, piperrak,... Beraz, hemen dik aurrera inoiz baino beharrezkoagoa izango da euskaltzaleon laguntza.



AGINAGA

Oskar Santamaria



Egunpasa ederra Errioxa aldean

Duela aste pare bat Errioxa aldean izan ginen Aginagako hogeitaz bat gazte. Egun ederra pasatu genuen Leza herriko ardotegei batean eta, ederki jan eta edan ondoren, berriz buelta egin genuen mikrobusean. Eta eguna ederki bukatzeko elkartean bapote afalduta etxeratu ginen. Errepikatzeko moduko eguna.

Parranda ez da, ordea, egiten dakigun bakarra eta dagoeneko hasiak gara datozen San Praixkuak antolatzen. Kuadrila polita biltzen bagara ere, gehiago etorriko balira ongietorriak izango lirateke. Hamar bat lagun biltzen gara, gehienak gazteak. Honegatik, denon tamainako festak antolatzeko

zaharxeagoak etortzea ere eskertuko genuke, guztientzat egitarau «konpletoa» osatzeko. Eta, behin festak aipatuta, ordurako frontoia bukatuta egongo denaren esperantza daukagula esan beharra dago. Guk, behinik behin, hori kontuan hartu dugu egitaraua egiteko orduan. Bertan lanean ari direnek esan ziguten festak hasterako obraren parte handiena bukatuta egongo dela, nahiz eta detaileren bat edo beste faltako den. Ea, bada, halaxe den eta San Praixku ederrak pasatzeko moduan gauden, frontoi berria eta guzti.



ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



San Juan bezperako festa

Hemen da Uda, eta aro horri hasiera emateko, aurten ere, lehengo igande gauean, Zubieta Pilota Elkartek antolatutako, San Juan Bezperako afaria ospatu genuen. Zubietako plazan antolatu zen afaria, karparen babesean, eta ondoren, San Juan sua egin zen plaza atzeko belardian.

Ez zen guztiz erraza izan prestatutako sua erretzea, izan ere, eguraldi hezea izan genuen egun guztian zehar eta horrek ez zuen lagundu sua pizteko ahalegina, baina azkenik, erre ziren urte guztiko zakarrak eta izpiritu txarrak. 70 herritar bildu ginen, ume, gazte eta heldu, une alai bat pasatzeko asmotan. Aipatu dudanez, eguraldia ez zen gure lagun izan baina

hala ere, ez zen eragozpen izan ondo pasatzeko.

Honako hau izan zen menua: arrai zopa, redondoa saltsan, postrea eta kafea.

Anoetako trikitrilariak izan genituen lagun, eta afari osoan jardun zuten jendea alaitzen beren doinuekin. Azkenik, festari bukaera emateko, gauza guztiak biltzera ekin genion, izan ere, festa bat ez da amaitzen gauza guztiak txukun- txukun jaso arte.

Beraz, esan genezake, San Juan suako afaria, zubietarrontzat, festetako "errodaje" antzeko bat dela, izan ere, konturatu gabe, iritsiko zaigu hurrengo hila eta Santioak ate joka daude. Beraz, beharrezkoa dugu horre-



tarako gure gorputza prestatzea.

Aurten ere, Zubietako gazte kuadrilla bati esker, ari dira ahalik eta programa txukunena prestatzen, eta ez dira faltako urteko ekintzak: dantza-soka, antzerkia, herri afaria, pilota partidak, musika emanaldiak... Zain gaude Santioak noiz helduko.

Ikasturtea amaitu bada ere, liburutegiak zabalik jarraitzen du

Udan sartu berri garen honetan, liburutegiak egun "bero" hauetan plan fresko bat egiteko aukera eskaini nahi dizu: **Bibliotekan bertan liburu eta gainerakoak lasai irakurtzekoa, edo etxera maileguan eramatekoa.**

Mota guztietakoak ditugu: Komikiak, ipuinak, eleberri edo nobelak, gai ezberdinei buruzko liburuak, entziklopediak. Haurren-
tzako liburuak, gazteentzako liburuak, helduentzako liburuak. Tarte polit bat pasatzeko liburuak, informazioa bilatu edo ikasteko liburuak. Eta aldizkariak, egunkariak, lan eskaintzak...

Baina gaur egungo liburutegiek, gurea barne, badugu beselako aukerarik ere, hala nola: Ikusentzunezkoen atala eta Biblioteka elektronikoa.

-Ikusentzunezkoen artean, musi-

kako CD multzo bat aurki dezakezu, gai ezberdinei buruzko zenbait bideo eta CD-ROMekin batera. Baita zenbait bideo pelikula ere. Guzti hauek, haur, gazte eta helduentzat. Hala ere, aitor-tu beharrean aurkitzen gara oso bilduma apala dela, hasiera, esango genuke.

-Biblioteka elektronikoa izen potoloaren bidez, berriz, ordenagailuz bilaketak egiteko modu ezberdinak adierazi nahi ditugu: Internet zerbitzua (16 urtetik gora), lehen aipaturiko CD-ROMen kontsulta, eta liburutegi-ko dokumentuak bilatzeko Kata-logo informatizatua.

Guzti hau, urte sasoi honetan, ordutegi honekin: astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 14:00etara. Gonbidatuta zaudel!

Beno, baina ez ahaztu abuztu osoan itxita izango dela udal liburutegia.



Abuztuan itxita egongo da udal liburutegia.

► Alderdien Legea salatu asmoz geldialdia egin zen Udaletxean

Pasa den astean, ez zen ez gobernu batzorderik ez udalbatzarik egin. Batasunak ekimen honekin Alderdien Legea salatu nahi izan zuen. Hala ere, geldialdia politikoa izan zen, udal zerbitzu guztiek berdin-berdin lan egin baitzuten.

Jose Antonio Altunak adierazi zigun eran, "geldialdi instituzional honen bidez gure desadostasuna azaldu dugu. Alderdiaren Legea badakigu zein norabidetara zuzendua dagoen eta hori salatu asmoz hartu dugu neurri hau".

Bando bidez jakinarazi zitzaizkion herriari geldialdiaren arrazoi nagusiak.

► Aurrera doa azterketa soziolinguistikoa

Laster jakingo da nork egingo duen herriko azterketa soziolinguistikoa.

Usurbilen aipaturiko azterketa soziolinguistikoa egiteko lau proposamen jaso dira.

Ekainaren 11n ireki ziren kartazalak eta ekainaren 20an bildu zen epaimahaia. Hurrengo Gobernu Batzordea egin ondoren jakingo da azterketa soziolinguistikoa nork egingo duen.

Beraz, proiektua martxan jarraitzen du eta talde-irabazlea laster hasiko da lanean.



Giltzak
kopiatzeko
ditugu!

Zapatak, Kanpinak,
Kremailerak (poltsak,
zamarak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2

Tel: 943 37 27 95

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea

Fatxaden konponketa



Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

ARGILAN

Etxetresna elektrikoak

Santixabel
zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Kontzeju zaharra, 13
Usurbil

Tel: 36 13 80

Ikastolen aldeko ekitaldiak diruz lagundu ditu Udalak

Maiatzaren 28ko Gobernu Batzordeak ikastolen aldeko ekitaldi garrantzitsuenak diruz laguntzeko erabakia hartu zuen.

Euskara-batzordeak aho batez egindako proposamenaren arabera, Herri Urrats 2002 egunari 901,52 euroko dirulaguntza eman zaio. Diktamenak dioen arabera, "Udalak emandako dirulaguntza hau Nazio Eraikuntza ikuspuntutik ematen dela eta Euskal Herrian Euskaraz eraikitzeke nahiarekin".

Diru kopuru bera emango zaio Nafarroa Onez 2002 edi-

zioari.

Araba Euskaraz 2002, Ibilaldia 2002 eta Kilometroak 2002, aldiz, 360,61 euroko dirulaguntza bana jasoko dute.

Guztira, 2.884,87 euroko diru partidarekin Udalak euskararen aldeko festa garrantzitsuenak babestu nahi izan ditu.



► Nekazaritza ustialekuak laguntzeko epea zabalik

Nekazaritza batzordeak ustialekuetan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteak ustialekuetan jartzeko laguntza eskaerak aurkezteko epea ezarri du 2002ko apirilaren 22ko foru aginduari jarraituz. Prentsa-ohar batean agertu digun eran, "nekazaritza ustialekuetan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteak ustialekuetan jartzeko 2002. urtean laguntza eskaerak aurkezteko epea ekainaren 1etik urriaren 31 artekoa izango da".

Eskaerak ustialekua kokaturik dagoen eskualdeko nekazaritza bulegoan aurkeztu behar dira.

Amaitzeaz da kontribuzioa ordaintzeko epea

Ondasun higiezin gainerako zergari buruzko informazioa zabaldu genuen aurreko alean. Borondatez ordaintzeko epea uztailaren 4an amaituko dela gogorarazi nahi du Udalak.

2002.urtean kontribuzioa maiatzaren 15etik uztailaren 4ra bitartean kobratuko da. Zerga honen ordainketa helbideratuta (domiziliatuta) duten pertsonen uztailaren 1ea kargatuko zaie kontuan eta helbideratu gabe dutenei adierazitako helbidera bidaliko zaie imprimakia ordainketa egin dezaten.

Herriar guztiei jakinarazten zaie maiatzaren 15etik uztailaren 4ra bitarteko lan egunetan,

biak barne, ordaindu ahal izango dutela borondatezko epean Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezin Zerga.

Apirilak 23a baino lehen helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kutxatik kobratuko dira zuzenean uztailaren 1ean.

Helbideratu gabeak eta gainerako ordainagiriak, ordean, zergadunak adierazitako helbide fiskalera bidaliko dira maiatzean, Kutxa, Euskadiko Kutxa, Guipuzcoanko banketxean edo zerga bilketa bulegoan ordainduak izan daitezten.

Era berean, zergadunek helbideratu gabe dituzten ordainagiriak helbideratzeko aukera izango dute udaletxean, Kutxa,

Euskadiko Kutxa edo Guipuzcoano Banketxean.

Egunero 9:00etatik 14:00arte zergadunak ordainagiriak ordaindu ahal izando ditu, jaiegunak izan ezik.

Ekainaren 20a iritsi eta zergadunak ordainagiria ez badu etxean jaso, zergabilketa zerbitzuan eskatu beharko du borondatezko epea amaitu baino lehen.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, Ogasun Foralak premiamendu bidezko jardunbideari ekingo dio, ordaindu ez diren kuotei %20ko gaitzargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak gaineratuz.

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Osasunez urratu aurtengo santixabelak!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

Aranzadik megalito berri bat seinaleztatuko du Aitzazate mendian

Aranzadi elkarteak 247 megalito katalogatu ditu Gipuzkoan. Horietako lau gure herrian bertan: Andatza mendian hiru dolmen; Aitzazate mendian zista bat.

2001. urtean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Gipuzkoan dauden megalito guztiak monumentu multzo izendatu eta Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratu zituen. Ondare hau geroztik babestuta dago Kultur Ondarearen Legeari jarraiki.

Izendapen hau garrantzitsua bada ere, nabarmentzekoa da urte askotan Aranzadik egin duen lana. Zientzi elkarteak hau izan baita lagun anonimo askoren laguntzarekin megalito hauek guztiak katalogatzen eta babesten aritu dena.

Iaz, Gipuzkoako monumentu megalitikoak seinaleztatu eta babesteko proiektua aurkeztu zuen instituzio ezberdinen artean. Tartean, Usurbilgo udaletxean.

Proiektu honen arabera, Aranzadik hiru helburu nagusi bete nahi ditu: ondare hauen inguruko informazioa eman; megalito hauek guztiak babestu eta zaintzeko neurriak gomendatzea; eta hirugarrenik, megalito guztiak mugarri berezi batzuekin seinalestatu.

Andatzakoak dagoeneko seinalizatuta daude. Eta Aranzadi elkarteak kideek koordinatzen dute dolmen bakoitzaren seinalizatze eta mantenu-lanak. Uda honetan, ordea, Aitzazateko zista seinalizatuko da. Hau bisitatu nahi duenak oso erraza dauka: Aitzazate, Igeldoko mendilerroan kokatzen da,



Horrelako seinaleak ipintzen ditu Aranzadik megalito bakoitzaren aldamenean.

Mendizorrotz eta eta Kukuarri mendien artean. Dolmena baino txikiagoa, Aitzazateko zistak balio berbera du eta hau ere monumentu megalitikotzat hartzen da.

Garai bateko ohituren ikur nagusiak

Garai bat irudikatzen duten elementu arkitonikoak dira Andatzako dolmenak eta Aitzazateko zista. Denboraren poderioz mantendu diren ikur bakarrak direnez, guztiak babestea beharrezkoa da. Garai bateko ohituren ikur nagusi baitira.

Luis del Barrio, Aranzadiko Historiaurreko Arkeologia Taldeko kidearen esanetan, "herritarren laguntza ere oso garrantzitsua da. Ondare hau orain arte oso utzita egon da. Aranzadik urtean mendizale, udal ordezkari eta herritarren laguntzarekin ondare hau guztia seinaleztatzen aritu da. Baina hori ez zen nahikoa. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren ekimenez, dolmen eta orokorrean megalito guztiak kultur ondare izendatu

eta monumentu izaera eman zaie". Izendapen hori oso garrantzitsua da megalitoen iraunbizitzeko ziurtatu ahal izateko. Legez babestu dira megalitoak. Orain arteko hutsune hori estaltzera dator Aranzadik urtean eskatu duen neurri hau.

Gipuzkoako ondare megalitikoak seinaleztatu eta babesteko proiektu honen sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila da, Kultur Ondareaz arduratzen den zuzendaritzaren eskutik. Aranzadi Zientzia Elkarteak Historiaurreko Arkeologia atala da proiektu honetaz arduratu dena, betiere, Luis Del Barrio eta Jesus Altunaren gidaritzapean. Ezinbestekoa da, halaber, inplikaturako ualetxeen laguntza: karguetatik hasi eta obra zein mantenuaz arduratzen den brigadaraino.



Andatzako megalito bat garbiketa egin baino lehen.



Andatzako megalitoetako bat, garbiketa lanak amaituta.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, giro onean ospatu ziren Kalezargo festak

Amaitu dira Kalezargo festak. Baina jaigiroa ez da itzali. Santixabe-lak gainean ditugu eta ondoren iritsiko dira Santioak eta Sanestebanak. Kalezarren, behintzat, antolatzaileak gus-tura daude aurten egindakoa-rekin. Eguraldiak ez du gehiegi lagundu baina jendeak ekital-di guztietara erantzun du.

Iragarri bezala, txupinazioa-ren ondoren abiatu ziren ekai-naren 15ean oilasko biltzaileak. 20 bat lagun bildu eta Arratzai-neraino iritsi ziren. Lehen gau-festa Akelarrek girotu zuen. Hurrengo egunean, umeak izan ziren nagusi. Tailer zein jokoetan ume piloak bildu zen plazan. Buruhandiek ere gus-tura ibili ziren batetik bestera.

Arrakasta handia izan zuen, halaber, ekainaren 22ko mus

txapelketak. 37 bikote aurkeztu ziren eta Ibarreta-Arteaga bikotea-rentzat izan ziren txapelak. Herriko dantzarien saioa ikusi eta ondoren Luhartz taldeak girotu zuen dan-tzaldia. San Joan bezperan, eskean ibili ziren auzoko gazteak. Amets Arzallus eta Alaitz Sarasola bertsolariek alaitu zuten eske-lana. Antxetan indarrak berritu eta denak sua-ren inguruan bildu ziren berriro: bai eskean ibili zirenak, baita gainontzeko herritarrak ere. Bertso saioak suaren inguruan izan zuen segida. Ordu txikitan, hirugarren bertsolari bat aritu zen kantari: Arratzaingo lurgi



Xirimiria egin bazuen ere, Kalezarren piztu zen San Joan bezperako suak lagun asko bildu zituen.

Mendiluze.

San Joan egunean, ordea, Zubizarreta izan zen protago-nista, berak irabazi baitzuen Toka Txapelketa.

Sardinak dastatuz eta Saiza-rreko sagardoa edanez amai-tu ziren festak San Joan egu-nean.



San Ferminetan bezain lasterketa ederrak ikusi genituen Umeen Egunean buruhandiak azaldu zirenean.



Sardina zein Saizarreko sagardo dastaketarekin amaitu ziren Kalezargo festak.

ERRAZKIN

**Igeltseritza
orokorra**

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santuenena Mob: 629 42 05 65

Kalkos kopisteria

- ✎ Fotokopiak
- ✎ Fotokopiak koloretan
- ✎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ✎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ✎ Planoen kopiak (AO arte)
- ✎ Ordenadoreko lanak
- ✎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ✎ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

**AGIRREZABAL
estankoa**

*Jai zoriontsuak
usurbildar guztioi!!*

Kale nagusia, 27
Telefona: 36 11 10

Julian Beraetxe eta Andoni Atxega: "Teknikariei esker funtzionatzen dugu"

Aurreko Noaualtan PSOE-EE eta EAko kideak elkarriketatu ostean, EAJ-PNV alderdiaren txanda iritsi da. Gauza jakina da PNV eta alkatezaren arteko harremana ez dela batere ona. Haserrealdiaz eta udal gestioaz galdegin diegu Julian Beraetxe eta Andoni Atxega zinegotziei. Bide batez, Euskal Herrian bizi dugun gatazka ere izan dugu hizpide.

Madrilen beste hizpiderik ez da. Gotzainen idatzia, Alderdien Legea... badirudi begi-puntuan dagoela euskal kutsua duen edozer.

Julian Beraetxe. Pentsatzen dugu Euskal Herria momentu honetan ematen ari den jokoa Madrilek dauzkan arazo asko tapatzeko ontzat hartzen dituztela. Edozein arazo hemengo gaiekin tapatu nahi izaten dutela. Hori hala da. Hartu duten direkzioa ikusita, Batasuna ilegalizatu nahi honekin -oso lotsa gutxirekin egin nahi dutena-, arriskutsua izan daiteke euskal abertzaletasun guztia rentzat. Batasuna behera botatzen badute bihar edozein indar politiko bota dezakete.

Uzturre Forumaren aurkezpenean, Xabier Arzalluzek elkarriketa zela konponbidea adierazi zuen. Dena den, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak ez ditu Legebiltzarrean egiten diren bileretan Batasunako kideak gonbidatzen.

A. A. Niretzat, elkarbizitzarako arau minimo batzuk ezarri behar dira. Hitz egiteko minimo batzuk. Ezin gara eseri hilketen aurrean abstenitu edo paso egiten duen jendearekin. Haien aldetik aurrerapauso bat ikusi behar dugu, borondate hori ikusi benetako elkarriketatik sartzeko.

Madrilgo Kongresuan Alder-



Gaur egun udalean EAJ-PNV alderdiak dituen bi ordezkariak, Julian Beraetxe eta Andoni Atxega.

dien Legearen aurka bozkatu duten talde bakarrak izan dira PNV, IU eta talde mixtoa. Hala ere, gai hori herrian planteatu denean zuek abstentzioaren alde egin duzue.

J. B. Guk une honetan agintean dagoen jendearekin erlazio oso txarra dugu. Gure jarraia da abstenitu edo aurka bozkatea. Abstentzioa, beraz, protesta gisa hartzen dugu. Gauza oso puntualak direnean argitzen dugu ados gaudela baina alkatezarekin ditugun diferentziengatik abstenitu egiten gara. Eta azalpenak ematen ditugu aktan islatuta jasota gera daitezen.

A. A. Horregatik guk ilegalizazioa aztertu zenean beste mozio bat aurkeztu genuen, adostu edo elkarriketatik sartzeko. Baina zinegotziek alde egin zuten.

Giro horretan kokatu behar da torturaren aurkako mozioan zuen alderdia abstenitu izana?

J. B. Ez, torturaren gaian, beste mozio bat aurkeztu genuen esanez gu tortura guz-

tien aurka gaudela. Tortura klase batzuk bakarrik kontenplatu zirelako aurkeztu zen dokumentuan.

Begibistakoa da alderdien arteko harremanak ez direla onak.

A. A. Udaletxean, antolakuntza barruan, eragina badu horrek. Gure lana, oposizioa egitea, askoz zailagoa egiten zaigu. Datuak eta dokumentuak eskuratzeko atzetik ibili behar izaten dugu. Makina bat eskaera egiten ditugu idatziz eta ez zaizkigu luzatzen. Etxe barruan kanpokoak izango bagina bezala gabiltza.

Udal gestioaz zer esango zenukete?

J. B. Hirigintzan, orain arau subsidiarioen aurrerapenekin gaude. Alde batetik teknikoei badute postura zabal bat, Usurbilek epe luzera izan behar duen garapena aurrikusiz. Alkateak eta bere talde politikoak teknikoei ikusten duten lekuraino ez dute iritsi nahi, dena kontrolpean edukitzeko asmoz. Bi postura daude. Ez

dute garbi azaldu zergatik moztu nahi dituzten teknikoek proposaturiko neurri horiek.

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitza akaso egin nahi dira Olarriondon. Horren aurka gaude, hasteko, 250 etxebizitza egin nahi direlako Olarriondon ia lau hektareako lur-azaleran. Inor ez da sakrifikatu behar babes ofizialeko etxeak egiteko. Terrenoen jabe direnekin espropiazio bidez, "agravio comparativo" bat egingo da. Udalak parean dituen terrenoak garestiago saldu zituelako. Injustua iruditzen zaigu. Uste dugu norma aldaketa horietan aurrikusi beharko liratekeela Usurbilgo sarrera-irteerak. Badakit ez dela erraza baina saiakera handia egin beharko litzateke. Eta Santueneako auzoan ere ahalegin bat egin beharko litzateke bailara dignifikatzeko.

A. A. Udalak duen konstruktore izateko joera horrekin ez gaude ados. Ez da udalaren lana promotore izatea.

Pertsonalarekin ere kezkatuta gaude. Lehen kultura eta euskara teknikariak eskatzen genituen eta dirutza handia zela zioten. Geroztik atera dira bi postu barne promozioz eta hiru oposizio librean. Orain arteko azalpenak ez digute balio. Langileekin oso jarrera txarrak dituzte, euren sokakoak ez direnekin batez ere. Ez dute irizpide jakin bat kontratazioari aurre egiterakoan.

Haziendari dagokionez, kez-

"Aginagako frontoia, obra desproporzionatua"

katuta gaude mailegu bat eskatu delako. Berez, hainbestearainoko presa ez duten gauza batzuk egiteko. Aginagako frontoia egin beharrekoa iruditzen zaigu baina obra desproporzionatua dela uste dugu.

Gainera, diru asko publizitatek gabe banatu da. Badu bere abantaila, azkarrago egingen dira gauzak baina legeak

dioenez justifikatuta egon behar dute publizitatek gabeko gastuak. Eta orain arte formula hori etengabe erabili dute, batere kontrolik gabe.

Kirolean, funtzionamendurako azkartasunik ez dugu ikusten. Bi talde sendo daude, judo eta dantza erritmikoa, eta biak patronatutik kanpo aurkitzen dira. Kulturean, Kultur Etxeko proiektua ateratzeko garaia bazen eta orain presaz dabil-tza. Beharrezkoa da eta horren aurka ez gaude. Euskarari dagokionez, kale neurketak emaitza eskasa eman zuen, eta hori tapatu eta bi hilabete-ra ikerketa orokorrako bat egin da eta hor azaltzen da erabilera askoz hobea dela...

Gizarte Zerbitzuetan lan ona egiten da. Beharra sumatzen dut gizarte laguntzaileen lan baldintzak hobetu behar dire-lako. Egunekeo Zentroa aurrera doa eta hori ere positiboa da.

Imanol Ubeda

"Zaila ikusten dugu EAren koalizioa errepikatzea"

Herri askotan hasi dira udal hauteskunderi begira koalizio kontuak aztertzen. Hemen nola daude gauzak EAren?

A. A. Arazo nagusia izan zen koalizioa oso denbora gutxian osatu genuela. Hitzartuta bost gauza genituen, hitz eginak 20 baina ez zeuden paperean jasota. Eta arazoa hortik etorri zen. Gaur egun ez dugu harremanik eta hemen oso zaila ikusten dut.

Batasunarekin duzuen hase-realdia teknikari berriaren kontratazio prozesuak eragin zuen, ezta?

A. A. Azkeneko errekurtsioa izan zen problema, baina guretzat lehenbizikoa izan zen. Errekurtsio hori seigarrena baitzen eta lehenbiziko bostetan ez genuen erantzunik jaso. Ikusten genuen euskara mai-

lan lan egiteko pertsona bat bazela eta ahalegindu behar zela hari bidea ematen. Beste batzuri eman zaien bezala. Kulturarako beste teknikari bat behar dela uste dugu. Beraiek bat bientzako esaten zuten. Bertakoari aukerarik eman nahi ez bazitzaion, gutxienez bi plaza ateratzeko proposame-na egiten genuen: bat euskarako, bestea kulturarako.

Herriko jendea eta aholku batzordeetan parte hartzen zuen jendeak asmo berdina zeukan, baina udal-gobernuak esan zuen ez, eta ez. Hitz egiteko aukera ez genuenez, saiatu ginen prozesua ahalik eta garbiena izan zedin ziurtatzea. Akats bakoitzeko alegazio bat sartzen genuen. Akats bat egin, alegazioa sartu; akatsa zuzendu ez eta aurrera egingen zuten. Bigarren akatsa

egin, bigarren alegazioa sartu; zuzendu ez eta segi. Eta laugarrena izan zen beste akats hori. Eta horrekin haserretu egin ziren. Baina beste biderik ez dute uzten. Gure ideia argia da: norbait lanpostu batera sartu behar badu sar dadila garbi, argi eta inolako dudarik gabe.

Hori konpontzeko zer egin daiteke?

A. A. Guri garbi utzi ziguten: guk gaizki egin dugula onartzea. Horretarako sinestu behar dugu gaizki egin dugula. Eta ez dugu sinesten gaizki egin dugunik. Beraz, ezin dugu ezer zuzendu.

Ez gara gu izan harremana moztu dugunak. Ikusi dezakete ordutik gure oposizioa moderatu egin dugula baina, antza, ez du balio.



Udan ez aspertzeko aukera ugari dute herriko gazteenek

Amaitu da ikasturtea. Amaitu dira eskolak. Ikasketak alde batera uzteko garaia heldu da. Uda iritsi baita. Eta udarekin batera, Uda Jolas eta Euskal Txokoa izeneko ekimen ezagunak. Aurtengo eskaintza nolakoa izango den jakin asmoz, bi ekimen hauetako arduradunekin aritu gara solasean.

Euskal Txokoa, Ikastola eta Udalaren artean gauzatu zen duela sei bat urte. Asmoa, ingurune erdaldunean bizi diren hurrei euskal giro bat ziurtatzea. Era berean, euskararekin arazoak dituzten aurrei lagungarri zaie Euskal Txokoaren proposmena, batez ere gurasoetako bat erdalduna bada. Ainhoa Bizkarguenaga Euskal Txokoetako kide bat dugu eta berak eman dizkigun azalpenen arabera, ekimen hau itxia da. Zerrendak ez direla irekiak, alegia. Uztailaren 4tik 30era egongo da martxan Euskal Txokoa. Baina urtean zehar ere martxan izaten da. Ainhoa Bizkarguenaga eta bere kideek bi egoitza dituzte: bat kaxkoan, Udarregi Zaharrean; eta bigarrena, Santuenean. Hondartza, Txiki Park, Lasarte-Oria eta Zubietara dira irteera askoren helmuga. Astean behin, heritik kanpora irteten dira Euskal Txokoan dabiltzan gazte-txoak. Dena den, udako eskaintza berezia bada ere, urtean zehar ere martxan iza-

ten da. Interesaturik bazaude, dei ezazu 658 704 350 telefono zenbakira.

Uda Jolas, ostera, Euskal Txokoaren segidan antolatzen. Batez ere, Euskal Txokoan izena emateko perfila ez duen haurrari irteera bat eman arren. Arrakasta handia du udako eskaintzak nahiz eta Uda Jolas ez den soilik udako proposamena. Aste Santuan edota Gabonetan ere lanean aritu ohi dira Udajolaseko arduradunak.

Haurren arteko harremanak mantendu nahian

Helburua: oporraldietan haurren arteko harremana ez etetea. Gaztetxoan aisialdia ahalik eta atseginena egiten saiatzen dira Aiora Godinez eta gainontzeko begiraleak. Aiora, Udajolaseko arduradunak esan digunez, "uztailean eta abuztuan hamabost eguneko txandak antolatuko ditugu. Baina baten batek hiru astetan egin nahi badu ez da inongo arazorik".

3 eta 10 urte bitarteko haurrak dira udajolas ekimenean parte hartzeko aukera dutenak. Eta ekitaldi gehienak



Ilharduera ezberdinak lantzen dira Euskal Txokoan zein Uda Jolas kanpainan.

herrian egiten badira ere, Uda Jolasekoek ere irteerak egiten dituzte, astean behin hain zuzen: "Donostiara, Oriola... dinamika ezberdinak lantzen ditugu eta horren arabera antolatzen ditugu irteerak". Iaz 60 hurrek eman zuten izena. Dena behar bezala bideratzeko, aldiz, 8 bat begirale biltzen dira Uda Jolas ekimenaren baitan.

Beraz, goizetan badute nora joan 3-10 urte bitarteko haurrek.

Euskal giro batean ondo pasatzeko aitzakia da Uda Jolas. Beraz, etxeko txikienak udan gustura ikusi nahi baduzu, Uda Jolasen duzu aukera ederra. Izena emateko epea amaitu zen baina orain deitzen baduzu agian lekuren bat topatuko duzu: 637 758 710, Aiora Godinez.

Eguneko bazkariak
**ETXEBESTE
JATETXEA**
Ondo ibili
USURBILGO FESTETAN!

Aginaga

☎ 943 36 27 40

*Pinturas
lon*

943 83 09 37 ☎ 670 397504

ITURGINTZA
.....

**JOSEBA
ARANGUREN**
.....

Telf: 943 83 00 72

**JOSUE
ARANZAZISTROKI**

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

*Juan Jose enea, 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05*

Jarraipen zabala izan zuen ekainaren 19ko greba orokorrak

Madrilgo gobernuak dekretuz onartu duen lan erreformari aurre egiteko bi greba deialdi egin ziren. Dena den, Usurbilgo langileriak ia bere osotasunean ELA eta LAB sindikatuek eginiko deialdiari erantzun zion. Ekainaren 20rako CCOO eta UGT sindikatuek egindako deialdiak, ordea, jarraipen urria izan zuen. Hala ere, nahiz eta gutxiengo izan, hainbat langilek bat egin zuten grebarekin.

Usurbilen gauzak argi zeuden aldeztu aurretik. Aurrikuspenak egi bihurtu ziren ekainaren 19an, ELA eta LAB sindikatuek deituriko grebak jarraipen masiboa izan baitzuen. Bittor Iribar LAB sindikatuko ordezkariak azaldu digun moduan, "Gipuzkoa osoan bezalaxe, Usurbilen ere 19ko greba erabatekoa izan zen. Bizkaian oso zabala eta Araban zein Nafarroan, garrantzizkoa". Zentzu horretan, Bittor Iribar LABeko kideak balantzea ona egin digu: "kontuan izan behar dugu bi deialdi egin zirela. Gainera grebaren aurka faktore asko zeuden eta, hala ere, gure deialdia izan zen jarraipen handiena izan zuena".

Era berean, euskal sindikalgintzaren eragina zabala dela frogatu dela uste du LABeko kide honek: "horrelako ekimenak antolatzeke CCOO eta UGTren beharrik ez dugula ikusi da".

Greba orokorrak jarraipen zabala izan zuen industrian, beste sektore guztietan bezalaxe: administrazioan, irakas-kuntzan, komertzioan...

Greba, arestian aipatu bezala, ia erabatekoa izan zen. Salbuespen batzuk eman

zirelako. Bittor Iribarrek emandako datuen arabera, "Michelinen ekainaren 19an grebaren jarraipena %30ekoa izan zen". Era berean, Ingemarrek bulegoetan lan egin zela aitortu digu Bittor Iribarrek: "ofizinetan batzuk greba egin zuten, baina beste batzuk lanera joan ziren eta hauen jarrera salatu nahi dugu LABeko kideok".

Aurrera begira ez da beste protestaldirik baztertzen. Baina emaitzari beste balioa ere bilatu dio LABeko kideak: "jaso dugun erantzun zabalak erakutsi du aurrerago iritsi gaitezkeela. Esparru sozio-laboralean euskal langilegoak pausak emateko prest dagoela". Azkenik, Usurbilgo langilegoa zoriondu nahi du LABek, erantzuna zabala izan zelako.

UGT sindikatua gustura ekainaren 20ko emaitzekin

Ekainaren 20rako UGT eta CCOO sindikatuen eginiko deialdiak, Usurbil aldean ez



Salbuespenak salbuespen, ekainaren 19ko deialdiak jarraipen handia izan zuen herrian.

zuen hainbesteko jarraipenik izan. UGT-ko Manuel Sanchez delegatuak aitortu digunez, "gu gustura gaude langilegoak ekainaren 20an eman zuen erantzunarekin". Dena den, UGT sindikatuko kide honen arabera, "lau sindikatuen deialdia bateratua izango balitz geldialdia erabatekoa izango litzateke".

Gainera, greba bi egun ezberdinetan egin izana aldarrikapenen kalterako izan dela gaineratu digu Manuel Sanchezek.

CCOO eta ELAko kideekin harremanetan jarri bagara ere, ez zaizkigu euren erantzunak iritsi.

Imanol Ubeda

Sektore guztiek bat egin zuten ELA eta LAB-en deialdiarekin



Ekainaren 19ko deialdiak jarraipen handia izan zuen herrian.



Pello Sasiain, triatloiairen ironman berria

Pello Sasiain triatloia du afizio nagusia. 1994an hasi zen erdi txantxetan eta harrez gero asko dira egin dituen frogak. Baina horietako bat bera ere ezin da parekatu Lanzaroteko ironmanarekin. Iaz ikustera joan aurten partehartza. Eta bizitakoa ez du aise ahaztuko. Gustura ibili delako eta batez ere ondo pasatu duelako. Hori da Pelloren xede nagusia: marka ona egitea baino ongi pasatzea.

"Ironman izango da soilik kirola maite duena, garbi jokatzeko duena eta muga bihotzean eta burmuinean dagoela dakien pertsona. Finisher izatea ez da ezinezkoa. Nahi izatea da kontua, baina, bizitza marka bat edo txapelketa bat baino zerbait gehiago dela ahaztu gabe. Ironman izateak zure bizitzaren, lanbidearen, familiaren eta zure formakuntzaren osagarri izan behar du. Soilik ironman izan nahiak ez du zentzurik". Hori da Usurbilgo *finisher* (ironman frogatik amaitzen duena) honen filosofia, triatloi aldizkari bateko komikian irakurritakoa.

Bitxia da Pelloren ibilbidea. Zarautzen egin zuen lehen triatloia, lankideen artean piztu zen pike baten ondoren. Nork esango lioke orduan Pellori, erdi txantxetako frogatik horren segidan triatloien munduan burubelarri murgilduko zenik.

Ironman frogatik da triatloi guztietan gogorrena. Eta hori ere

egin duela esan dezake orain Pellok. Adi Lanzaroteko ironman-ean osatu behar izan zuen distantziari: 3,8 km igeri, 180 km bizikletan eta 42 km korrika. Ikaragarria, ezta? Sei hilabete topera entrenatu ostean lortu du balentria.

Ahaleginaren ondoren aste-beteko atsedena behar izan zuen. Orain satisfakzio handia du, bere buruarekiko batez ere.

Lanzarotera joan baino lehen, bi proba egin zituen: "Lehenik, Azkoitia-Azpeitia. 16:00etan maratoni erdia korritu nuen. Baina goizean 140 km egin nituen bizikletan", adierazi digu Pello Sasiainek.

Eta maiatzaren lehenean, bigarren frogatik: 150 km bizikletan eta 21 km korrika. Horrek konfidantza handia eman zion, ironman frogatik egitea posible zela ikusi baitzuen.

Lanzaroten ametsa bete duela aipatu digu Pellok: "Ironman hori egin nahi nuen. Ezkon-ezteian Lanzarotera joan ginen. Iaz, frogatik ikustera joan nintzen oporrak aprobetxatuz. Eta aurten ironmana egin dut. Betiere, familiaren laguntzarekin".

20.000 pezetako inskripzioa ordaindu, bidaiak pagatu eta oporretatik hartutako egunetan joan zen Lanzarotera. Dena den, argi utzi nahi du triatloia afizioa duela: "Laguntza handia dut etxean bertan. Bestela



Pellok 13 ordu behar izan zituen frogatik osatzeko.

ez da posible. Niri kirola egitea gustatzen zait baina bizitzan gauza gehiago daude".

Maiatzaren 25ean osatu zuen balentria. Igeriketa saioa da gustukoena duena. Bizikleta da gehien kostatzen zaiona. Baina korrika saioa, hiruetan azkena, amaitezina egin zitzaion.

Frogatik ondo egiteko asko edan eta asko jan behar dela esan digu Pellok: "nik platano pilo bat jan nuen, ura eta isostar ere asko edan nuen".

Boxes-en, frogatik amaieran, askok sueroa hartu behar izan zuten indarrak berritzeko. Pello ondo iritsi zen, nekatuta baina osorik. Ez zuen, beste askok bezalaxe, "laguntzaren" beharrik izan. Hori bai, errekupeztzeko astebete behar izan zuen.

Pentsa, goizeko 7:00etan irten zen eta 20:00etan amaitu zuen frogatik: 3,8 km igeri, 180 km bizikletan eta 42 km korrika. 13 orduko ahalegin etengabea. Erraz esaten da, ezta?



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- beheak
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

Aginaga
36 27 73

SEKAÑA

Aurten egindakoarekin gustura daude igerilariak

Ikasturtea amaitu denez, balantzea egiteko ordua iritsi da. Honakoan, igerilari gazteengana hurbildu gara. Pedro Leundaren aginduetara, asko dira Oiardora hurbiltzen diren gazteak. Tartean dira, infantil, kadete, alebin eta benjamin mailako igerilariak.

Infantil eta kadeteei dago-kionez, bi saio garrantzitsu nabarmendu dizkigu Leundak: urte hasieran Zarautzen egini-ko txapelketa. Eta maiatzaren 4an Hernanin egindakoa. Ellande Loiti, Miren Loiti eta Jon Loidi izan dira gure ordezkariak eta hirurak lan ona egin dute txapelketetan. Ellande Goitik etorkizunean ondo ibiltzeko baldintzak betetzen dituela frogatu du.

Alebin eta benjamin mailan, Pedro Leundaren neska-muti-

lak hiru txapelketetan nabarmendu dira: Andoainen, Lasarten eta Tolosan.

16 lagunek hartu dute parte: Miren Alkorta, Irati Arruti, Irati Ibargoiien, Garazi Iturralde, Garazi Basurto, Andoni Loiti, Julen Bengoetxea, Maria Peñagarikano, Garazi Torreal-dai, Olatz Arregi, Iruñe Lasarte, Olatz Larrañaga, Jon Osa, Josu Benito, Aritz Larrañaga eta Eneritz Olasagasti.

Nabarmentzekoa, Maria Peñagarikanok erakutsi duen erregularatasuna. Miren Alkorta lehiakortasun handiarekin aritu da, denbora onenak berak eman baititu. Eta Garazi Iturraldek, berriz, progresio handia erakutsi du. Irati Ibargoiien eta Irati Arrutirentzat lehen txapelketak izan dira hauek eta maila ona erakutsi dute biek.

► Uda 2002 kanpaina izena emateko azken egunak

Hauxe da aurten Oiardo Kirol-degiak uztailerako antolatuko duen egitarau zabala:

Tenisa, 6 urtetik aurrera.

Mendi bizikleta, eskalada, 9 urtetik aurrera.

Badminton, 6 urtetik aurrera.

Igeriketa, 3 urtetik aurrera eta baita helduentzat ere.

Aerobik, Helduentzat.

Hilaren 28a bitartean, eskaintza hauetako batean izena emateko aukera izango dugu. Beraz, interesaturik bazaude, ahalik eta azkarren hurbildu zaitez. Argibide gehiagorako: 943 37 24 98.

► XXX. Pilota Txapelketa-ren finalak Santxabel egunean jokatu dira

Andatzpe eta Peña Pagola Elkartek antolatutako Pilota Txapelketa azken txanpan murgildu da. Finalak 17:00etan hasiko dira eta pilotari hauek arituko dira lehian:

Gazte mailan: Errazkin-Irureta (Ordizia), Belloso-Mujika (Tolosa) bikotearen aurka. Portu-Arruti herriko bikote gazteak laugarren amaitu du.

Helduen artean: Huizi-Mintegi (Usurbil/Llartza) eta Eizagirre-Astigarraga (Azpeitia) bikoteak.


Antolatzaileek babesle hauen lana eskertu nahi dute: Usurbilgo sagardotegiak (Aginaga, Araeta, Iruin, Aialde Berri eta Saizar) eta Usurbilgo Udala.



**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95
609 068 111



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Haur jantziak



Ondo
igaro
festak!

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43


Ze er diyo?

Gure gotzainen azken idazkia dela eta



Xabier Andonegi

□ **Apaiza**



Denok jaso dugu zurrunbiloa-ren berri. Idazkia bera, irakurri, agian, ez zuten askok irakurriko, baina idazki horrek sortu duen soinua bai, ia denok entzun dugu. Erasokorrenak gotzainek esaten dutena "inmoral" dela diote. Hau da giza lege oinarritzkoena: ona eta okerra, alegia, ez dutela bereizten. Zergatik diote horrelakorik? Nire iritziz, sakon-sakonean, zera dago: gure jokaeragatik legeak gauza guztien gainetik jartzen ditugu, eta, ondorioz, legea eta morala zeharo nahasten ditugu.

Bizi garen giroan, erreza da gehiengoak pentsatzen duena egia dela uste izatea edo ona dela iriztea. Baina, gauzak ez dira horrela. Gehiengoaren iritzia, legea, ez da txarra; baina, ez da azken hitza, eta ez da arrazoiaren neurri nagusia edo moralaren bidea. Eta hemen dago gakoa. Gehiengoak eta gutxiengoak, denek, bizikidetzat izan behar dutela helburu eta ez beste ezer, askotan gertatzen den bezala.

Eta, zer dio idazkiak berak? "Alderdien Legea" aldatzen dutela eta, adibidez, zera diote: "zinez kezkatzen gaituzte zenbait ondorio ilunek, argi atzeman daitezkeenak eta saihestu beharrekoak". Zein ondorioz ari dira hitz egiten? "Gure bizikidetzari eta bakeari eragiten diotenak".

Bereziki, ezin da onartu, inolaz ere, "adostasun eta harreman ezaren menpean bizitzea". Ez, ezin da onartu, baten edo besteen interesengatik elkarriketa alde batera uztea eta zatiketa eragiten

duten estrategiak bultzatzea.

Ezin da ere onartu, diote: "bakea terrorismoarekin uztartzea". Egia da, ezin da horrelakorik inoiz onartu. Bakeak bake bideak eskatzen ditu. Askotan, biolentziaren bidea bakerako azkarrena izango den ustea ere zabaltzen izan da batzuen artean. Nik neronek bat egiten dut gotzainek diotenarekin: biolentzia guztiek "bizitzari, askatasunari eta demokraziari desafioa" egiten diotela, eta hau ez dela inoiz zuzena.

Baina, eztabaida beste gai honek ekarri du, Madrilgo gobernu eta hauen kideen aldetik etorri diren eraso eta liskarren ondorioz. Gotzainek idazkian zera diote: "dena ez da libre terrorismoaren aurka". Zergatik hori? Ba edozein delarik ere defenditu beharreko gizakia, gizaki hori bere ekintza okerrenen gainetik dagoelako pertsona bezala, eta pertsona orok hautsi ezinezko eskubideak dituelako. Ikuspegi honek, batzuen ustez, "terrorismoaren biktimak" ahantzi egiten ditu, baztertu. Egia al da hori? Ez, inolaz ere ez.

"Biktimen" eskubideak zeharo zapuztuak izaten dira, oinarritzkoena deuseztatzen zaienean: bizitza bera. Hau ezin du inork ukatu, baina horrek ez du esan nahi hiltzailearenak zapuztu behar direnik. Batak eta besteak errespetatu eta gorde beharrekoak dira, gizarte honetan moralki bizi nahi badugu. Eta hau da gure gaurko arazoa eta benetako erronka. Ez da erreza zuzenak izatea, baina hori da bidea eta hortik datorkigu benetako askatasuna.

SERIGRAFIA
TAnPOGRAFIA

Losu

Ugaldea poligonoa 36 - 2^o Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

TXURRUT

TABERNA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel.: 943 36 00 80

N•I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Lehiaketa



**Honako argazkian sei
aldaketa egin ditugu.
Ea bilatzen dituzun.**

Saria:

**Pako Aristik idatzitako "Venezuela,
iraultza isilaren hitzak" liburua.**

138. aleko erantzuna



Ezetz asmatu zenbat
txakur dauden
errolaturik herrian?

831

Irabazlea

Pilar Alkorta Olasagasti

Saria

**Bi pertsonentzat afaria
Bordatxo jatetxean**

Santixabel egunerako Menua

☐ Leka-entsalada (lau pertsona)

✕ Osagaiak:

- 4 tomate txiki
- 4 patata txiki
- 150 gr. ganba
- 2 binbo-ogi xerra
- goilarakada bat mahonesa
- goilarakada bat baratxuri xehatuta
- bi goilarakada sagar-ozpina
- 4 goilarakda olio (ona)
- gatza

✕ Nola egin:

Alde batetik, lekak garbitu eta xehatu, txiki-txiki.
Ura irakiten jarri, gatzarekin. Ura irakiten dagoela,
lekak bota eta 12 minututan utzi egosten. Behin

egosita daudela, atera eta ura, gatza eta izotze-
tara bota, lekak berde-berde geratu arte.

Bestaldetik, patata egosita eduki eta tomatea
zurituta. Zati txikitan egin biak eta, lehenik eta
behin, hauek bota platerera. Gainera, egosi ditu-
gun eta hozten jarriak ditugun lekak jarri, patata
eta tomatea tapatuz.

Ondoren, binagreta egin: olio, baratxuri xeha-
tua, ganbak, binbo-ogia zati txikitan moztua. Osa-
gai hauek guztiak sutan jarri. Gero, sutatik atera
eta epeltzen utzi. Epeldu eta gero, ozpina bota
eta goilarakada bat mahonesa. Hau guztia
nahastu eta orain arte prestatu dugun platerera
bota, binagreta izango balitz bezala, lekak tapatu
arte.

Gure menua listo dago mahaira ateratzeko.

**T R U K E
R JANTZIAK**
Santixabelak
ondo pasa!
Festen ondoren beherapenak!
Erdiko kalea, 2
Tel: 37 34 81



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zapozet
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogi eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsonako)

**RAMON
HARATEGIA**

Ondo ibili

gure festetan!

Bordaberri, 3
Usurbil

☎ 36 29 70

A genda

EKAINAK 28 ostirala

● Uda Kirola 2002 kanpainan izena emateko azken eguna. Izen-ematea, Oiardo kiroldegian. Telefonoa: 943 372 498.

Uztailak 1 astelehena

● Askatasuna Plaza eraberritzeko lehiaketara aurkezteko azken eguna. Kultura eta Euskara zerbitzuan jasoko duzu informazio gehiago: 943 37 19 51.

Uztailak 2 asteartea

● Santixabel Eguna.

Uztailak 3 asteartea

● Hondakin toxikoak bilduko ditu San Markos Mankomunitateko ibilgailuak. 9:00etatik 11:00etara frontoi atzean, eta segidan auzoz auzo.

Uztailak 8 astelehena

● Odol ateratzea Osasun Zentroan. 19:00etatik aurrera.

👉 GARAJEAK

- 🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- 🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- 🔧 Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- 🔧 Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- 🔧 Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

👉 ETXEBIZITZAK

- 🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- 🔧 Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- 🔧 Etxe bat salgai. San Esteban kalea, 16-4 ezkerre. 943 36 42 45 (Maria Jesus).
- 🔧 Etxe bat alokatuko nuke. Beste batekin konparitzeko prest. Telefonoa: 626 680 915.
- 🔧 Atxegalden pisu bat salgai. Beheko Kale, 6. 2 Esk. 943 37 17 59.

👉 LAN-ESKAERAK

- 🔧 Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. 943 36 43 10.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauez. 943 371447 (Belen).
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalari-tza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzak. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da arratsalde bi orduz umeak zaintzeko. Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- 🔧 Santixabeletan gustura egingo nuke lan. Beharrik baduzue, deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).

👉 LAN-ESKAINTZAK

- 🔧 Udarregi ikastolan kirol begiraleak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 zenbakietara.
- 🔧 Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- 🔧 Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat behar dugu harategian lan egiteko, uztailan eta abuztuan. Tf: 943 37 20 34.

👉 BESTELAKOAK

- 🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- 🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.
- 🔧 Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 🔧 Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15`llantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Tf: 649 322 873.
- 🔧 Dominadun kate bat galdu du duela 15 egun. Aurkitzen baduzu deitu 943 37 00 56 zenbakira.
- 🔧 Andatzen Nike markako zapatila txuria galdu zuten. Baita egurrezko katea, kolorekoa. Deitu 943 36 59 75.
- 🔧 Apirilaren 24an Kalezarren txapel bat galdu zen. Bilatu duenak dei dezala: 943 36 12 35 / 943 36 60 14.
- 🔧 Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. 943 835441 telefonora (Begoña).

- 🔧 Vespino AXL Motozikleta beltza, salgai. Telf. 943.365589.
- 🔧 Fagor markako frigorifiko bat saltzen dut. 5 urte ditu baina berria dago. 943 36 69 95 (Inma).
- 🔧 Kazadora bat galdu zen Askatasuna plazan eta bilatu zuenak Kinkildegian utzi zuen. Zurea bada pasa dendatik.
- 🔧 Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 24an. Kiroldegitik frontoira bidean. Topatzen badituzu deitu 943 37 13 46, Maite.
- 🔧 Aterpe tailerrean uztaila eta abuztuan zehar pintura klaseak hartzeko aukera. Tel: 943 365 975 (goizez).
- 🔧 Laredon apartamentua alokatzen dut hondartza aldamenean. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 79 52 80 / 656 717 745.
- 🔧 Kanario bat topatu dugu Kalezarren. Giltza bat ere aurkitu dugu, Igor jartzen du bertan. 650 216 161 telefonora deitu.
- 🔧 Erloju bat galdu da. Esferan koloreak ditu eta atzean izena eta data. Bilatzen baduzu deitu, 943 36 11 26.
- 🔧 Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- 🔧 Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.

Santixabeletako egitaraua osatuz

Oztibarreko Antzerki Taldea uztailaren 3an arituko da Usurbilen. Mattin Irigoienek sinaturiko "Haizea kotsia abarretan" antzezlanak 22:00etan hasiko da baina ez Udarregin, egitarauak dioen moduan, baizik eta frontoian.


Aipatzekoa da, halaber, egitarauan azaldu ez den beste erakusketa, Rosario Barreraren ikasleek Udarregi Zaharrean zabalduko dutena. Gure Pakea adinduen elkarteko kideak dira Rosarioren klaseetara joaten direnak. Festetan ikusgai izango dira aurten egin dituzten margolanak.

Kalitatezko zerbitzu euskaldunaren ziurtagiria herriko merkatarientzat

Herriko merkataritza euskalduntzeko egitasmoa azken txanpan sartu da dagoeneko. Kanpainari amaiera emateko merkatarientzat egunerokotasunean baliogarri izango zaien materiala banatzen ari da; besteak beste, merkataritza arloko hiztegia, itzulpen zerbitzuari buruzko datuak, eta abar. Baina, honekin batera, saltoki bakoitzari dagokion kalitatezko zerbitzu euskaldunaren ziurtagiria emango zaio.

Honen helburua bezeroari establezimendu horrek duen euskararen errealitatea erakustea da. Ziurtagiriak euskararen lau elementu hartzen ditu kontutan: errotulu nagusia euskaraz izatea; saltzaileak sortutako ageriko idazki guztiak, gutxienez, euskaraz izatea; langile guztiek euskaraz jakitea; eta, azkenik, bezero euskaldunari harrera euskaraz egitea.

Euskararen elementu bako-



tzaren baldintza betez gero, elementu bakoitzaren aldamean agertzen den laukitxoan ikurra jarriko zaio, elementu hori euskaraz duen seinale.

Aurrera begira, gaur gaurkoz hutsik geratutako laukitxoak

pixkanaka betetzea izango da lana eta erronka.

Guztira 105 ziurtagiri banatuko dira herriko establezimendu guztietan. Dagoeneko lan honetan hasia da kanpainako arduraduna.

Bazkidetza kuota Santixabel festen ondoren kobratuko dugu

Aurten bazkidetza kobraketa Santixabel jaiak bukatuta egiten hasiko gara. Ez genuke nahi inor ustekabeen harrapatzerik, beraz, gogoratu. Kontu korronte bidez egiten duzuenok, izango duzue gure berri. Ordainketa eskuz egiten duzuenok, berriz, gure kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri. Hala ere, edozein arazo izanez gero, badakizue non gauden. Bazkidetza orain artekoa da: 30 euro. Euroa dela eta, prezioek gora egin duten arren, guk ez dugu igoerarik egin.

BAZKIDE TXARTELA

30 EURO URTE OSORAKO



Izena: _____

1.Abizena: _____

2.Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Tfnoa: _____

Kontu Korrontea (20 digito): _____

Egin zaitez bazkide!

MAHUKA

ARROPA DENDA



Etxebeste, 3 Telf: 943 36 11 06

Udako moda guztia zuretzat!

FESTEN ONDOREN BEHERAPENAK!

Ondo igaro Santixabelak

PATRI JATETXEA



Ondo pasa Santixabelak!

Egunero bazkariak eta afariak

Kale Nagusia, 6 Telf: 943 36 27 25

USURBIL AUTOAK

ZERBITZU OFIZIALA



- ❑ Era guztietako konponketak
- ❑ Direkzioa lerrokatzea eta orekatzea
- ❑ Gasen analisia

KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA



Telf 943 36 10 79

Faxa 943 36 62 92

Zumartegi industrialdea
Aitzearra kalea, 1